30/1992 Legearen 37.2 artikuluarekin bat etorriz, eta bertan adierazitako intimitate-eskubidea bermatzearren, ez da banan-banako identifikaziorik egingo; hortaz, ebazpenek eragin diezaieketela uste dutenek, zuzenean nahiz azaroaren 26ko 30/92 Legearen 32. artikuluan zehaztutako betekizunak betetzen dituen ordezkari baten bidez, Gizartegintza Sailean aztertu ahal izango dituzte dosierrak, San Prudentzio kaleko 30-32.ean, jendaurreko orduetan.

Interesatuak jakinaren gainean egon daitezen ematen da argitara, banakako jakinarazpenaren ordez.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 23an.– GIZARTE GAIEN ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA.

De conformidad con el artículo 37,2 de la Ley 30/92, y en garantía del derecho a la intimidad que en él se reconoce, no se procede a la identificación individual, por lo que, quienes pudieran estimarse afectados por la resolución antedicha o por medio de representante que reúna los requisitos exigidos en el artículo 32 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, podrá examinar el expediente en el Departamento de Intervención Social, calle San Prudencio 30-32, durante el período de atención al público.

Lo que se hace público para conocimiento de los interesados a quienes debe de notificación individual.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 2005.– EL CONCEJAL-DELEGADO DEL ÁREA DE ASUNTOS SOCIALES.

VITORIA-GASTEIZ

1.566

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Salburuko 15. Sektorearen Plan Partzialaren 2. Aldaketa Puntualari dagokionez, Udal Osoko Bilkurak 2005eko otsailaren 25ean ondoko erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

1. Saski Baskonia S.A.D.- k sustatutako eta LKS Ingenieria-k idatzitako Salburuko 15. Sektorearen ("Parque de Salburua") Plan Partzialaren bigarren aldaketa behin betiko onartzea.

2. Erabaki hau eta Salburuko 15. Sektorearen Plan Partzialaren Aldaketa Puntualari buruzko Ordenantzak ALHAO aldizkarian argitara daitezen eta eraginpean hartutakoei jakinaraz dakizkien xedatzea, 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 56. artikuluan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Horrekin batera, jakinarazten dizut ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar daitekeela Alkatetza-Lehendakaritzaren aurrean, hilabete bateko epean jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzitarako Sailaren aurrean, bi hilabeteko epean ebazpen hau edo, hala badagokio, berraztertzeko errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, edota sei hilabeteko epean berraztertzeko errekurtsoaren balizko ezespenaren hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 28an.– Alkate Lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

1.XEDAPEN OROKORRAK

Gasteizko Ekialdeko Zabalkuntzako 15. Sektorearen Plan Partzial honen zehaztapenek arau-izaera izango dute antolamendu-planoetan adierazitako eremuan. Mugapen zehatza lerro poligonalak definitzen du (lerroaren erpinak 4. Eranskinean agertzen diren U.T.M. koordenatuetakoak dira).

Sektoreak 1.101.507,31 m²-ko azalera du guztira, eta lurzoruaren jabetzaren egitura definitzen duen hirigintza-informazioko idatzzatian agertzen dira lurren jabeak. 2. Eranskina.

Hirigintza Araudi honek Ekialdeko Zabalkuntzako 15. Sektorearen Plan Partzialean barne hartutako lurzoru-kalifikazio bakoitzaren erregimena arautzen du, bai eta Plana garatzen duten plangintza-tresnek bete beharreko zehaztapenak ere.

Araudi honen artikuluak Plan Partzialaren eremuan egiten diren jardun guztiei aplikatu beharko zaizkie nahitaez.

Ordenantza hauek Plan Partzialaren behin-betiko onarpena argitaratzen den egunean sartuko dira indarrean, eta beste Plan Partzialen bat behin-betiko onartu arte indarrean egongo dira.

Plan Partzialeko plano eta dokumentu guztiak Ordenantza hauetan barne hartuta daude. Bertan lurrekin zerikusia duten alderdi guztiak barne hartzen dira, hala nola eraikinen eta Planaren Antolamenduan agertzen diren gainontzeko elementuen erabilera, eraikuntza, destinoa, baldintza estetikoak, sanitarioak eta abar.

Ordenantza hauetan arautzen ez diren alderdi guztiei dagokienez, indarrean dagoen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean adierazitako arauak aplikatuko dira.

VITORIA-GASTEIZ

1.566

En relación con la Segunda Modificación Puntual del Plan Parcial del Sector 15 de Salburua del vigente Plan General de Ordenación Urbana, con fecha 25 de febrero de 2005, el Ayuntamiento Pleno ha adoptado el siguiente acuerdo:

1. Aprobar definitivamente la Segunda Modificación del Plan Parcial del Sector 15 "Parque de Salburua", promovida por Saski Baskonia S.A.D. y redactada por LKS Ingeniería.

2. Disponer la publicación del presente acuerdo y de las Ordenanzas de la Segunda Modificación Puntual del Plan Parcial del sector 15 "Parque de Salburúa" en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava y su notificación a los afectados, a tenor de la dispuesto en el artículo 56 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976 y en el artículo 70.2 de la ley de Bases de Régimen Local.

Lo que se hace público para general conocimiento, haciendo saber a los interesados que, contra la presente resolución, cabe recurso de reposición ante el Pleno de la Corporación, en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su notificación y/o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de notificación de esta resolución o, en su caso, de la resolución desestimatoria del recurso de reposición o, en su defecto, en el plazo de seis meses desde el día siguiente a aquél en que se produzca la desestimación presunta del recurso de reposición.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2005.– El Alcalde Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

1.DISPOSICIONES GENERALES

Las determinaciones de este Plan Parcial del Sector 15, Expansión Este, de Vitoria-Gasteiz, tendrán carácter normativo en el ámbito indicado en los planos de ordenación. La delimitación exacta viene definida por la línea poligonal, cuyos vértices responden a las coordenadas U.T.M. que figuran en el Anexo 4.

La superficie total del Sector es de 1.101.507,31 m², siendo los propietarios de los terrenos quienes figuran en el apartado de información urbanística que define la estructura de la propiedad del suelo. Anexo 2.

Esta Normativa Urbanística regula el régimen de cada una de las calificaciones del suelo incluidas en el Plan Parcial del Sector 15, correspondiente a la Expansión Este, así como las especificaciones que deberán cumplir los instrumentos de planeamiento que lo desarrollan.

Los diferentes artículos de la presente Normativa deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las actuaciones que se realicen dentro del ámbito del Plan Parcial.

La fecha de entrada en vigencia de las presentes Ordenanzas será el día en el que se publique la aprobación definitiva del Plan Parcial, y su vigencia será indefinida hasta que se apruebe definitivamente otro nuevo que lo abarque.

Todos los planos y documentos escritos del Plan Parcial forman parte de las presentes Ordenanzas. En ellos se definen todo cuanto afecta a los terrenos, en orden a su uso, edificación, destino, condiciones estéticas, sanitarias, etcétera, tanto de las construcciones, como del resto de los elementos que figuran en la Ordenación del Plan.

Para todos aquellos aspectos no regulados en las presentes Ordenanzas les serán de aplicación las Normas enunciadas en el vigente Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz.

Hirigintzaren, eraikuntzaren eta antzeko jardueren arloan indarrean dauden arau, lege, araudi, dekretu eta abar guztiak nahitaez bete beharrekoak izango dira.

"Memoria", "Hirigintza Araudia" eta "Antolamendu Planoak" izeneko dokumentuak dira hirigintza-jarduera arautzen dutenak eta, beraz, bertan zehazten dena nahitaez bete beharko da.

2.HIRIGINTZA-ERREGIMEN OROKORRA.

2.1.LURZORUAREN KALIFIKAZIO OROKORRA ETA XEHATUA

Lurzoruaren kalifikazio orokorra Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ezarritako zehaztapenetan agertzen da, 15. Sektoreko lurzoru urbanizagarriko eremuaren fitxari jarraiki, eta antolamendu-planoetan dago grafikoki adierazita. Honako hiru kategoria hauek barne hartzen ditu:

Garraio eta Komunikazioen Sistema Orokorra
Espazio Libreen Sistema Orokorra
Hirugarren Sektorea-Merkataritza

Lurzoruaren kalifikazio xehatua honako plano hauetan adierazita dago: Kalifikazio Xehatua (1/2000 eskalan) eta Enklabeen Akotazioa (1/1000 eskalan). Plano horiek proiektuko planoei buruzko dokumentuan barne hartuta daude.

2.2.ZONEN ZATIKETA

Aurreko kalifikazioen arabera, Ekialdeko Zabalkuntzako 15. Sektoreko eremua zatitu egin da eta zati bakoitzari erabilera xehatuak esleitu zaizkio, bakoitzaren hirigintza-erregimena arautzeko:

Garraio eta Komunikazioen Sistema Orokorra
- Bide nagusia: 31.177,00 m^2
Komunikazio Sistema, guztira: 31.177,00 m^2

Jabari eta Erabilera Publikoko Espazio Libreen Sistema Orokorra
- Hiri-parkea: 737.679,15 m^2
- Erabilera publikoko espazio libreak: 7.420,08 m^2
- Hiri barruko bidea (VU3) 5.232,07 m^2
Espazio Libreen sistema, guztira 750.331,30 m^2

Hirugarren Sektorea-Merkataritza, Enklabe Sistema
- Espazio libre publikoa 6.454,69 m^2
- Hiri barruko toki-bidea 21.793,27 m^2
- Berdegunea 79.104,63 m^2
- Gizarte-ekipamenduko erreserba (ES) 18.169,72 m^2
- Irabazizko aprobetxamenduko enklabeak
  E1: 8.800,99 m^2
  E2: 7.783,36 m^2
  E3: 28.560,03 m^2
  E4: 38.290,40 m^2
  E5: 11.041,92 m^2
Enklabe Sistema, guztira: 219.999,01 m^2

15. Sektorearen guztizko azalera (arestian xehatutako hiru sistemen batura) 1.001.507,31 m^2-koa da.

3.GARAPEN-TRESNAK

3.1.XEHAPEN-AZTERLANEN ARAUTZEA, ETA OINARRIZKO PROIEKTUAK

Xehapen Azterlan bidezko jardun geroratua, edota zuzeneko jarduna, enklabeko lursail guztietarako oinarrizko proiektu unitarioa aurkeztuz gero.

Plan Partzial honetan ondoren finkatuko ditugun zonetarako finkatutako plangintza-baldintzak garatzeko, nahitaezkoa izango da irabazizko aprobetxamenduko enklabe guztietarako bidezko xehapen-azterlanak idaztea, bai eta, hala badagokio, gizarte-ekipamendurako erreserbatutako ES enklaberako ere.

Hala ere, Xehapen Azterlanaren ordez, enklabeko lursail guztiak barne hartuko dituen oinarrizko proiektu unitario bat idatzi ahal izango da.

Eraikuntza-proiektuetarako lizentzia lortu aurretik, bidezko xehapen-azterlanak, oinarrizko proiektuak eta urbanizazio-proiektuak idatzi beharko dira, Plan Partzial honetan definitutako zona bakoitzerako ezarritako zehaztapenei jarraiki.

Plan Partzial honen burutzapen-tresnak, beraz, honako hauek izango dira: xehapen-azterlanak edo oinarrizko proiektu unitarioak, urbanizazio-obrak egiteko urbanizazio-proiektuak, eta eraikuntzak burutzeko eraikuntza-proiektuak.

Todas las Normas, Leyes, Reglamentos, Decretos, etcétera, en vigor, referidos a materias de urbanismo, construcción y actividades afines son de obligado cumplimiento.

Los documentos Memoria, Normativa Urbanística y Planos de Ordenación son los que poseen carácter normativo y de regulación de la actividad urbanística, debiéndose por tanto, cumplimentarse lo por ellos especificado.

2.RÉGIMEN URBANÍSTICO GENERAL

2.1.CALIFICACIÓN GLOBAL Y PORMENORIZADA DEL SUELO

La calificación global del suelo procede de las determinaciones establecidas en el Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, conforme a la ficha de ámbito en suelo urbanizable del Sector 15; y se expresa gráficamente en los planos de ordenación, comprendiendo tres categorías:

Sistema General de Transportes y Comunicaciones
Sistema General de Espacios Libres
Terciario-Comercial

La calificación pormenorizada del suelo se expresa en los planos de: Calificación Pormenorizada a escala 1/2000 y en Acotación de Enclaves a 1/1000, incluidos dentro del documento de planos de proyecto.

2.2.DIVISIÓN DE ZONAS

A la vista de las calificaciones anteriores se ha subdividido el ámbito del Sector 15, Expansión Este en una zonificación, con asignación de usos pormenorizados, al efecto de la regulación de su régimen urbanístico:

Sistema General de Transportes y Comunicaciones
- Vial principal: 31.177,00 m^2
Total Sistema de Comunicaciones: 31.177,00 m^2

Sistema General de Espacios Libres de Dominio y Uso Público
- Parque urbano: 737.679,15 m^2
- Espacios libres de uso público: 7.420,08 m^2
- Vía urbana VU3: 5.232,07 m^2
Total Sistema de Espacios Libres: 750.331,30 m^2

Terciario-Comercial, Sistema de Enclaves
- Espacio libre público 6.454,69 m^2
- Vía urbana local 21.793,27 m^2
- Zona verde 79.104,63 m^2
- Reserva de equipamiento social ES 18.169,72 m^2
- Enclaves con aprovechamiento lucrativo
  E1: 8.800,99 m^2
  E2: 7.783,36 m^2
  E3: 28.560,03 m^2
  E4: 38.290,40 m^2
  E5: 11.041,92 m^2
Total Sistema de Enclaves 219.999,01 m^2

La superficie total del Sector 15, que responde a la suma de los tres sistemas anteriormente detallados asciende a un total de: 1.001.507,31 m^2

3.INSTRUMENTOS DE DESARROLLO

3.1.REGULACIÓN DE LOS ESTUDIOS DE DETALLE Y PROYECTOS BÁSICOS

Actuación diferida por medio de Estudio de Detalle, o Actuación Directa si se presenta un Proyecto Básico Unitario para la totalidad de las parcelas del Enclave.

En el desarrollo de las condiciones del planeamiento, fijadas en el presente Plan Parcial para las zonas que a continuación se fijan, se hace obligatoria la redacción de los oportunos Estudios de Detalle para todos los enclaves de aprovechamiento lucrativo, e incluso, en su caso, para el ES reservado para Equipamiento Social.

No obstante, el Estudio de Detalle podrá sustituirse por un Proyecto Básico Unitario que abarque a la totalidad de las parcelas del enclave.

Previamente a la obtención de licencia de los diversos proyectos de edificación, se deberán redactar los oportunos Estudios de Detalle, Proyectos Básicos y los Proyectos de Urbanización, conforme a las determinaciones establecidas en el presente Plan Parcial para cada una de las zonas en él definidas.

Los instrumentos de ejecución del presente Plan Parcial serán, por tanto, los Estudios de Detalle o Proyectos Básicos Unitarios, los Proyectos de Urbanización para la realización de las obras propias de urbanización, y los Proyectos de Edificación para la ejecución de las construcciones.

Xehapen-azterlanak, Plan Partzial honen testuinguruan, plangintzako zehaztapenen arabera bolumenen antolamendua aurreikusi edo berregokitzeko eta lerrokadurak eta sestrak adierazteko erabiliko dira. Horien mugak eta edukia Lurzoru Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bategineko (92) 91. artikuluan, eta Plangintza Araudiaren 65 eta 66. artikuluetan agertzen dira.

Era berean, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean eta Plan Partzial honetan ezartzen diren baldintza guztiak kontuan hartuko dituzte.

Ordenantza hauen aplikazioa zehazkiago eta argiago ezartzearren, eta hemen aipatutako lege-estipulazioak aparte utzi gabe, xehapen-azterlanek edo oinarrizko proiektu unitarioek honako hauek barne hartuko dituzte Memorian: irabazizko aprobetxamenduko enklabeetako zonen arabera proposatzen den lur-zatiketaren justifikazioa, jardueraren ezaugarriak eta eraikuntzaren baldintzak. Nolanahi ere, Gasteizko Udalaren onespena beharko da.

4.LUR-ZATIKETAK EGITEKO BALDINTZAK

Enklabeetarako planoetan grafikoki irudikatu diren lur-zatiketei dagokienez, orientazio-izaera dutela adierazten da, eta ez dute inolako loturarik.

4.1.APLIKAGARRITASUNA

Lur-zatiketa egiteko jardun-esparrua Enklabe Sistema gisa definitutako zona izango da, gizarte-ekipamendurako azalera barne.

4.2.HIRIGINTZAKO LUR-ZATIKETAREN DEFINIZIOA

Enklabe Sisteman definitutako azaleren barruan dauden lurzoruak, aldi berean edo segidan, bi multzotan edo gehiagotan zatitzea da hirigintzako lur-zatiketa.

Nolanahi ere, azpizatiketa horiek Plan honen zehaztapenetara egokituko dira, eta beraien kudeaketa jardun geroratu gisa (bidezko Xehapen Azterlanaren bidez) edo zuzeneko jardun bidez (Oinarrizko Proiektu Unitarioaren bidez) bideratuko da. Halaber, azpizatiketen ondoriozko lursail bakoitzaren mugak finkatuko dira.

4.3.BALDINTZA PARTIKULARRAK

Lursailaren gutxieneko fronteak enklabe bakoitzeko espazio libre pribatuetara zein inguratzen dituen berdegunera ematen dutenak dira, E4 enklabean izan ezik, kasu horretan ELPU2 espazio libre publikora ere emango baitute.

Enklabe berean hainbat lursail dauden kasuan, lur-zatiketak ez du errespetatu beharko estratu-zatiketa.

5.ERAIKUNTZARI ETA ERABILEREI BURUZKO ORDENANTZA PARTIKULARRAK

5.1.OROKORRAK

Jabari eta erabilera publikoko zona eraikigarriei zein eraikiezinei buruzko Ordenantzetan berariaz arautu gabeko alderdi guztietan, indarrean dagoen Plan Orokorraren Testu Bategineko Hirigintza Arauek, Plan Partzial hau garatzeko idazten den Xehapen Azterlanak edo Oinarrizko Proiektu Unitarioak, eta bidezko urbanizazio-proiektuek ezarritakoari jarraituko zaio.

Kalifikazio xehatuaren kategoria bakoitzeko eraikuntzari eta erabilerei buruzko araudia azalduko dugu jarraian, Ordenantza Arautzaile hauetan adierazitako zatiketaren arabera.

5.2.HIRI-PARKEA

Hiri-parkearen kokapena eta azalera Antolamendu Planoan irudikatuta daude.

Urbanizazio Proiektuaren baldintzek Memoria honetan ezarritako argibideak, Plangintza Araudiaren 69. eta 70. artikuluak, eta Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Hirigintza Arauetako 2.04.01 eta 2.04.02 artikuluak hartuko dituzte kontuan.

5.2.1.Babes-erregimena

Parkea Leheneratzeko Proiektuan diseinuaren irizpide orokorra osatzeko zehazten diren urbanizazio-elementuak baino ez dira baimentzen (zuhaitzak, eserlekuak, seinaleak, argiteria eta abar).

Los Estudios de Detalle, en el contexto del presente Plan Parcial, consisten en los instrumentos de desarrollo cuya finalidad es prever o reajustar la ordenación de volúmenes de acuerdo con las especificaciones del planeamiento y el señalamiento de alineaciones y rasantes. Sus limitaciones y contenido responden al artículo 91 del Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana 92 y a los artículos 65 y 66 del Reglamento de Planeamiento.

Igualmente contemplarán cuantas condiciones se impongan en el Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz y en el presente Plan Parcial.

A fin de establecer con mayor precisión y claridad la aplicación de estas Ordenanzas y sin perjuicio de las estipulaciones legales aquí referenciadas, los Estudios de Detalle o Proyectos Básicos Unitarios contemplarán en su Memoria la justificación de la parcelación que se proponga en función de las zonas de enclaves de aprovechamiento lucrativo, características de la actividad y condiciones de la edificación y usos, debiendo contar, en cualquier caso, con la sanción positiva del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

4.CONDICIONES PARA LAS PARCELACIONES

En lo referente a las parcelaciones que han sido representadas gráficamente en planos para los distintos enclaves, se indica, que disponen de carácter orientativo, sin vinculación alguna.

4.1.APLICABILIDAD

La acción de parcelar tendrá su campo de actuación en la zona definida como Sistema de Enclaves, incluida también la superficie destinada a Equipamiento Social.

4.2.DEFINICIÓN DE PARCELACIÓN URBANÍSTICA

Se considera parcelación urbanística la subdivisión simultánea o sucesiva de terrenos en dos o más lotes, de los suelos dentro de las superficies definidas en el Sistema de Enclaves.

En cualquier caso las subdivisiones citadas se ajustarán a las determinaciones del presente Plan y su gestión se canalizará, como Actuación Diferida, mediante el conveniente Estudio de Detalle, o como Actuación Directa, Proyecto Básico Unitario, fijándose los límites de estos extremos para cada una de parcelas que resultaren de la subdivisión.

4.3.CONDICIONES PARTICULARES

Los frentes mínimos de parcela lo son, tanto al conjunto de espacios libres privados de cada enclave, como a la zona verde que los rodea, excepto en el E4, que lo serán también al espacio libre público ELPU2.

En el caso de varias parcelas en un mismo enclave, la división parcelaria no tendrá que respetar la división en estratos.

5.ORDENANZAS PARTICULARES DE EDIFICACIÓN Y USOS

5.1.DE CARÁCTER GENERAL

En todos los aspectos no regulados específicamente por las Ordenanzas relativas a las zonas, bien sean edificables o no edificables de dominio y uso público, se estará a lo establecido por las Normas Urbanísticas del Texto Refundido del Plan General vigente, al Estudio de Detalle o Proyecto Básico Unitario, que se redacte como desarrollo de este Plan Parcial y a los Proyectos de Urbanización correspondientes.

Se desarrolla a continuación la normativa de edificación y usos de cada categoría de calificación pormenorizada, de acuerdo con la división enunciada en las presentes Ordenanzas Reguladoras.

5.2.PARQUE URBANO

Su localización y extensión responde a la representada en el Plano de Ordenación.

Las condiciones del Proyecto de Urbanización contemplarán las indicaciones marcadas en la presente Memoria, así como los artículos 69 y 70 del Reglamento de Planeamiento y artículos 2.04.01 y 2.04.02 de las Normas Urbanísticas del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz.

5.2.1.Régimen de protección

En ellas se permite exclusivamente la localización de los elementos de urbanización: arbolado, bancos, señalización, alumbrado, etcétera, que en el Proyecto de Recuperación del Parque se especifiquen para completar y complementar el criterio general del diseño.

5.2.2.Erabilera-erregimena

Erabilera baimenduak honako hauek dira: pertsonentzako egonaldi-erabilerak (inguruko estetika eta ingurumen baldintzak hobetzen dituzten zuhaiztietan eta lorategietan), Hirigintza Araudi honetan eta Memoriaren bidezko idatz-zatian aipatzen diren atari zabaleko kirol-erabilerak, eta Plan Orokorraren eraikuntzari eta erabilerei buruzko arauen eta ordenantzen 5.03.37 artikuluan (sistema orokortzat hartutako 45.000 m_-tik gorako hiriparkeen eta berdeguneen baldintza partikularrak) baimendutako guztiak.

Funtsezko zerbitzu-sareen trazadurak onartzen dira, betiere lurpetik.

Honako erabilera bateragarri hauek ere baimentzen dira:

- Bide eta bidexka zikloturisten trazadura.

- Golfeko kirol-erabilera, praktika-eremuak, putt-eremuak, approach-eremuak, eta pitch and putt modalitatean jokatzeko zelaia barne hartzeko aukerarekin.

- Zaldi-ibilbideak, oinezkoen ibilbideekiko paralelo doazenak.

- Natura interpretatzeko ibilbideak.

- Osasun-ibilbideak

- Azpiegitura-sareen berezko instalazioen lanak eta trazadura (sare horiek lurpetik joango dira).

5.2.3.Kirol-ekipamendua

E4 enklabearen hegoaldean, atari zabaleko eta erabilera publikoko kirol-ekipamendu ugari plantea daitezke: 3x3ko pistak, minifutboleko pistak, skate-eremua, zirkuitu naturala, mahai-tenisa, haur-jolasak, petanka, minifrontoiak, sare-jokoak.

Kirol-ekipamendu horiek okupa dezaketen azalera Araudi honi erantsitako planoan agertzen da (azalpen-izaera baino ez du).

Memorian zerrendatutako paisaia-irizpideak hartuko dira kontuan beti, eta, bereziki, Sektorearen iparraldetik hiri-parkerako bisten iragazkortasuna.

Kanpoko jokalekuak ezin izango dira ezein eraikuntza iraunkorrekin estali. Gainera, erabilera publikoa bermatu beharko da.

Gainerako erabilerak debekatutzat hartuko dira eta, bereziki, ibilgailuei zona honetara pasatzeko aukera emango dieten ibiak egiteko debekua azpimarratzen da (parkearen segurtasunerako, mantentzerako eta kontserbaziorako ibilgailuak salbu).

Kasu jakin batzuetan, enklabeetako eraikinak inguratzen dituzten estalkiak erliebe faltsuen moduan luzatu ahal izango dira (landart), hiri-parkearen ingurunean txertatzeko. Luzapen horiek eskultorikoak baino ez dira izango, eraikigarritasunik kontsumitu gabe. Larrialdi-ibilgailuen irisgarritasuna bermatu beharko da beti.

5.3. ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIO LIBREEI BURUZKO ORDENANTZA

Berdegune publikoak osatzen dituztenak honako hauek dira:

Oinezkoen area	ELPU1
Egoteko gunea	ELPU2
Ertzeko gunea	ELPU3
Ertzeko gunea	ELPU4

Gune horien kokapena zonakatze eta kalifikazio xehatuari buruzko planoan irudikatuta dago.

Lurzoru horietan kokatu beharreko zerbitzu-sareei eta instalazioei dagokienez, honako hauek aplikatuko dira: eraikuntzaren arau teknologikoak, Plangintza Araudiaren baldintzak eta indarrean dagoen araudi aplikagarria.

ELPU2 egoteko guneak E3 enklaberako sarbidea du. Bere amaierako geometria bat dator enklabearen eraikuntza-okupazioarekin, eta lerrokadura inguratzaileak azalpen-izaerakoak dira. Nolanahi ere, esleitutako azalera lotesle gisa mantenduko da: 1.808,42 m2.

5.3.1.Urbanizazio-elementuen erregimena

Urbanizazio Proiektuan diseinuaren irizpide orokorra osatzeko zehazten diren urbanizazio-elementuak eta hiri-altzariak baino ez dira baimentzen (zuhaitzak, eserlekuak, argiteria eta abar).

5.3.2.Erabilera-erregimena

Zona hauetan aurreikusitako erabilerak honako hauek dira: pasaera, egonaldia, aisia, atsedena eta ingurumen-kalitatea.

5.2.2.Régimen de Uso

Los usos permitidos corresponden a los de estancia de personas, en zonas arboladas y ajardinadas, que mejoren las condiciones estéticas y ambientales del entorno, a los usos deportivos al aire libre que se mencionan en esta Normativa Urbanística y en el apartado correspondiente de la Memoria y a todos aquellos autorizados en el artículo 5.03.37: Condiciones particulares de los Parques Urbanos y Zonas Verdes, conceptuadas como sistemas generales, mayores de 45.000 m2, de las Normas y Ordenanzas de Edificación y Usos del Plan General.

Se admiten los trazados de redes de servicios fundamentales, siempre bajo conducto subterráneo.

Como recorridos compatibles se permiten también:

- Trazado de caminos, senderos y sendas cicloturistas.

- Uso deportivo de golf, con la posibilidad de incluir zonas de prácticas, zonas de putt, zonas de approach, y campo de pitch and putt.

- Recorridos ecuestres, paralelos a los peatonales.

- Recorridos de interpretación de la naturaleza

- Recorridos de salud

- Ejecución y trazado de las instalaciones propias de las redes de infraestructuras, las cuales discurrirán en subterráneo.

5.2.3.Equipamiento Deportivo

En la zona sur del enclave E4 se podrán plantear toda una serie de equipamientos deportivos al aire libre, de uso público, que podrán comprender desde pistas de 3x3, pistas de minifútbol, zona de skate, circuito natural, tenis de mesa, juegos infantiles, petanca, minifrontones, juegos de red..

La superficie que podrán ocupar viene marcada en el plano que se adjunta a esta Normativa y tiene únicamente título indicativo.

Se tendrán en cuenta, en todo momento, los criterios paisajísticos enumerados en la Memoria y en especial la permeabilidad de las vistas que deberá existir desde la zona norte del Sector hacia el Parque Urbano.

Las pistas de juego exteriores no podrán ser cubiertas con ningún tipo de construcción permanente y deberá de garantizarse un uso público.

El resto de los usos se consideran prohibidos, haciendo especial mención a la prohibición de realizar vados que permitan el paso de vehículos rodados a esta zona, a excepción de los de seguridad, mantenimiento y conservación del parque.

Puntualmente, las cubiertas envolventes de los edificios localizados en los distintos enclaves, podrán prolongarse en forma de falsos relieves (landart), integrándose en el entorno del parque urbano. Estas prolongaciones serán meramente escultóricas, no edificatorias, por tanto, no suponen consumo de edificabilidad, garantizando siempre la accesibilidad de vehículos de emergencia.

5.3. ORDENANZA DE LOS ESPACIOS LIBRES DE USO PÚBLICO

Los Zonas verdes públicas están compuestos por:

Área peatonal	ELPU1
Zona de estancia	ELPU2
Zona de borde	ELPU3
Zona de borde	ELPU4

Su localización queda representada en el plano de zonificación y calificación pormenorizada.

Serán de aplicación las Normas Tecnológicas de la Edificación, en lo referente a las redes de servicio e instalaciones que hayan de ubicarse en estos suelos, las condiciones del Reglamento de Planeamiento, así como la normativa vigente de aplicación.

La zona de estancia ELPU2 configura una plaza de acceso al enclave E3. Su geometría final se podrá definir al compás de la ocupación edificatoria del enclave, por lo que las alineaciones envolventes son indicativas. En todo caso, se mantendrá como vinculante la superficie asignada: 1.808,42 m2.

5.3.1.Régimen de los elementos de urbanización

En ellos se permite exclusivamente localización de elementos de urbanización y mobiliario urbano: arbolado, bancos, alumbrado, etcétera, que el Proyecto de Urbanización especifique para completar y cumplimentar los criterios generales del diseño.

5.3.2.Régimen de Uso

Los usos previstos de estas zonas son los de tránsito, estancia, ocio, esparcimiento peatonal y calidad ambiental.

Erabilera bateragarriak:

- Urmaelak, aintzirak eta ur-ibilguak instalatzea, beharrezkoa den azpiegitura teknikoarekin.

- Bide eta bidexka zikloturisten trazadura.

- Azpiegitura-sareen berezko instalazioen lanak eta trazadura (sare horiek lurpetik joango dira).

- Atari zabaleko kirol-praktikarako kirol-ekipamendu irekia instalatzea.

Gainerako erabilerak debekatutzat hartuko dira.

5.4.BERDEGUNEEI BURUZKO ORDENANTZA

Area honetan, golfean aritzeko leku ireki bat aurreikusita dago, bolak jaurtitzeko eremu estali batekin. "Enklabeen Akotazioa" planoan agertzen da (1/1000 eskalan), eta antolamendua eta tamaina gutxi gorabeherakoak dira.

5.5.BIDE-SAREARI BURUZKO ORDENANTZAK

5.5.1.Hiri barruko bide-sarea

Hiri barruko bide-sarea VU1, VU2 eta VU3 bideek osatzen dute.

VU1 bidea Garraio eta Komunikazioen Sistema Orokorreko kalifikazio orokorrean barne hartuta dago. Bere lerrokadurak, zabalerak eta ezaugarriak "Bideen Akotazioa" planoan definituta daude, 1:200 eskalako ereduzko sekzioekin.

5.5.2.Aparkalekuak

ERABILERA PRIBATUKO ESPAZIO LIBREETAKO APARKAMENDU-ERABILERAREN BALDINTZAK

Udalaren aurrean aurkeztu beharreko oinarrizko proiektuek aparkaleku-azaleren ikus-eraginaren txikiagotzea baloratu eta ezarri beharko dute. Horretarako, landare-oztopoak, lurraren izurrak eta abar jartzeko aukera hartuko da kontuan. Oztopo edo antzeko horiek gehienez ere 6 automobileko multzo bakoitzeko antolatu beharko dira. Halaber, 100 m_-ko zuhaitz bat jarri beharko da gutxienez.

Aparkaleku-zonan landare-hesi bat edo ezkutatzeko beste elementu bat jarri ahal izango da, 1,50 m-ko altuerakoa gehienez.

Aparkalekuen zoladura galtzada-harrizkoa izango da, zirkulazio-zonetan gutxienez; erretikularen tarteetan soropila hazi ahal izateko sareta-lauzekin zolatu beharko dira aparkalekuak.

Baldintza orokorrak eta eraikuntza-baldintzak Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Hirigintza Arauetako III. Liburukiaren V. Tituluko 3. Kapituluaren 10. Atalean ("Aparkamendu-erabilera") araututa daude.

5.5.3.Oinezkoentzako bidexkak eta ibilbide ekologikoak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ezarritako planteamenduen arabera, oinezkoentzako ibilbide bat sortu da urmaelen inguruan, bisitarien fluxua hezeguneko lekurik egokienetatik bideratzeko. Era horretan, balio ekologikorik handieneko zonen gaineko eragina txikiagoa izango da.

Bidexka eta ibilbide horietan, altzariak, ekipamendua, seinaleztapen-elementuak, oztopoak eta eserlekuak jarri dira.

Plan Partzial honen asmoa hiriko Eraztun Berdearen egituraketa sustatzea, eta ibilbide horiek Gamarrako parkearekin eta antzinako "Vaco-Navarro" trenbidearen korridorearekin lotzea da.

Horretarako, bidezko konexioak ezarriko dira eta etengabeko ibilbide hori lortzeko jardunak bideratuko dira.

5.5.4.Hiri-altzarien eta azpiegituren erregimena

Urbanizazio Proiektuan hiri barruko bide guztietako hiri-altzarien kokapena zehaztuko da.

Azpiegitura-sareen berezko instalazioen lanak eta trazadura, ahal den heinean, hiri-barruko bideetatik eta lurpetik joango dira.

5.5.5.Erabilera-erregimena

Bide-sarean aurreikusitako erabilera bakarra zirkulazio-erabilera da; aparkamendu-erabilera horretarako ezarritako aldeetara mugatuko da.

Lursailetatik kanpo, zamalanak ez daude baimenduta.

Lursailetan aparkatzeko dauden beharrak, neurri batean, lursailen barruan beteko dira, ordenantza bakoitzean finkatutako ratioen arabera.

Como usos compatibles:

- Instalación de estanques, lagos y cursos de agua, con su necesaria infraestructura técnica.

- Trazado de caminos, senderos y sendas cicloturistas.

- Ejecución y trazado de las instalaciones propias de las redes de infraestructura, las cuales serán subterráneas.

- Instalación de equipamiento deportivo descubierto, para la práctica deportiva al aire libre

El resto de usos se consideran prohibidos.

5.4.ORDENANZA DE LAS ZONAS VERDES

En este área, está prevista una superficie abierta de prácticas de golf, con una zona cubierta para lanzar bolas. Figura en el plano Acotación de Enclaves a 1/1000 y su disposición y tamaño son orientativos.

5.5.ORDENANZAS DE LA RED VIARIA

5.5.1.Red viaria urbana

La red viaria urbana está formada por las vías VU1, VU2 y VU3.

VU1 pertenece a la calificación global Sistema General de Transportes y Comunicaciones. Sus alineaciones, anchuras y características vienen definidas en el plano Acotación de Viales, con secciones tipo a 1:200.

5.5.2.Aparcamientos

CONDICIONES DEL USO DE ESTACIONAMIENTO EN ESPACIOS LIBRES DE USO PRIVADO

Los proyectos básicos a presentar ante el Ayuntamiento deberán valorar y resolver la minoración del impacto visual de las superficies de aparcamiento, a través de la disposición de barreras vegetales, ondulaciones del terreno, etc. cuidando de disponer estas barreras o similares por grupos de 6 automóviles como máximo, así como una especie arbórea cada 100 m^2 como mínimo.

La zona de aparcamiento podrá verse acompañada de un seto vegetal, u otro elemento de ocultación, de altura máxima de 1,50 metros.

La pavimentación de los estacionamientos deberá, al menos, llevar un tratamiento de adoquinado en las zonas de circulación, debiéndose pavimentar con baldosas de celosía, que permitan el crecimiento del césped entre los huecos de la retícula.

Las condiciones generales y constructivas, vienen reguladas por la Sección 10 Uso de Estacionamientos del Capítulo 3, Título V del Tomo III de las Normas Urbanísticas del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz.

5.5.3.Sendas peatonales e itinerarios ecológicos

Según los planteamientos establecidos por el Centro de Estudios Ambientales del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, se ha creado un itinerario peatonal perimetral a las balsas, para canalizar el flujo de visitantes a través de las zonas menos sensibles del humedal, minimizando los impactos sobre las de mayor valor ecológico.

A lo largo de estas sendas y recorridos se ha situado mobiliario y equipamiento, elementos de señalización, barreras y bancos.

La intención de este Plan Parcial es fomentar la estructuración del Anillo Verde de la ciudad, uniendo estos itinerarios con el parque de Gamarra y con el corredor del antiguo ferrocarril vasco-navarro.

Para ello, se establecerán las conexiones oportunas y se encaminarán las actuaciones hacia la consecución de este recorrido ininterrumpido.

5.5.4.Régimen del mobiliario urbano e infraestructuras

En el Proyecto de Urbanización se especificará la localización de los elementos del mobiliario urbano de todas las vías urbanas

La ejecución y trazado de las instalaciones, propias de las redes de infraestructura, discurrirán, en lo posible, por vías urbanas y serán subterráneas.

5.5.5.Régimen de Usos

Los usos previstos en la red viaria son exclusivamente los de circulación quedando relegado el estacionamiento a los laterales establecidos para ello.

La carga y descarga fuera de las parcelas no está permitida.

Las necesidades de estacionamiento de las parcelas se resolverán parcialmente en el interior de las mismas, según los ratios fijados en cada Ordenanza.

5.6.GIZARTE-EKIPAMENDURAKO LURZORUAREN ERRESERBARI BURUZKO ORDENANTZA

Gizarte-ekipamendurako lurzoruaren erreserbaren parametro bereizgarriak deskribatuko ditugu jarraian:

